

Euskara pasilloetan galdua. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien VIII. Edizioko
BIGARREN SARIA (2015)

Jaime Altuna

Gizarte Antropologian Graduatua

jaimealtunaramirez@gmail.com

Sarrera-data: 2015-11-03 / Onartze-data: 2015-11-30

Laburpena. Artikulu honetan nerabean hizkuntza-erabileran ematen diren aldaketei hurbiltzeko proposamen bat aurkeztzen da. Hizkuntzaren antropologian eta haurtzaro eta nerabezaroaren etnografian oinarriturik, Donostiako 13 urteko sei gazterekin batera ikerketa bat garatu dugu gaztetxoek hizkuntza-mudantza fenomenoan sakondu nahian. Nerabezaroan ematen diren praktiken aldaketetatik abiatuta, hizkuntza aldaketen fenomenoaz aztertzeko bide berri bat esperimentatzen saiatu gara gaztetxoek kolektiboari protagonismoa emanez. Hizkuntza-mudantza zehazki azaldu baino, hausnarketa bide berriak ireki nahi izan ditugu ikerketan modu aktiboan parte hartu duten gazteen hausnarketatik abiatuta. Bide hori hartuta, ondorio hauetara iritsi gara: ikastetxean gertatzen diren aldaketak baino ikastetxetik kanpo gertatzen direnak pisu handiagoa hartzen dutela; talde identitateak garrantzia handia duen ezaugarria dela euskarari uko egitearen fenomenoan eta kode aldaketarako joera oso handia dela nerabean artean.

• **Hitz gakoak:** *Nerabeak, Antropologia, Praktika-komunitatea, Hizkuntza sozializazioa, Hizkuntza-mudantza.*

Abstract. This paper presents a proposal for handling the changes that are taking place in language use among adolescents. On the basis of language anthropology and the ethnography of childhood and adolescence, we have conducted a piece of research together with six 13-year-olds of Donostia-San Sebastian with the aim of going further into the phenomenon of language shift among adolescents. From the starting point of the changes in the practices that take place among adolescents, we have tried to experiment with a new way of exploring the phenomenon of language changes by giving the group of youngsters prominence. Rather than specifically explaining language shift, we wanted to open up new paths starting from the reflections of the youngsters who have actively participated in the research. Having embarked on this path, we have reached the following conclusions: the changes taking place outside the schools are exerting greater weight than the ones taking place inside them; group identity is a feature that is highly important in the phenomenon in which Basque is rejected, and the trend in code switching is very high among adolescents. • **Key words:** *Adolescents, Anthropology, Practice-community, Language Socialisation, Language shift.*

1. SARRERA

I

Euskal Herrian hizkuntza aztertzen duten pertsonen artean bada oso onartutako egitate bat: haurtzarotik nerabezarora pasatzerakoan euskararen erabileran jaitsiera nabarmena ematen da. Kike Amonarriz soziolinguistak 2014ko udan hala zion:

Eskola barruko erabilera zer puntutaraino iritsi den ikusi dugu. Gailur bat agertu da: Lehen Hezkuntzako laugarren mailan, %61ek esaten dute gela barruan ikaskideekin beti euskaraz edo batez ere euskaraz egiten dutela. Ez bilatu inon horrelako daturik: ez dago inon horrelakorik. Euskararen erabileran daukagun tontorra hori da. Mailetan aurrera egin ahala, gelatik kanpora atera ahala, murriztu egiten da. (Amonarriz, 2014)

Azken urteetan egindako datu bilketek egoera konfirmatu dute eta adituek eta arituek irakurketa anitz egin dituzte gai honi buruz. Dena den, egin diren hausnarketetan bi gabezia daudela esan genezakeen. Batetik, hizkuntza aldaketaren fenomenoak nahiko modu isolatuan aztertzeke joera dago, nerabezaroen gainontzeko praktiken aldaketetan ematen diren aldaketak gehiegi aztertu gabe. Bestetik, gaztetxoen perspektiba ez da kontutan hartzen, hau da, fenomenoak apenas ikertu da aktoreen iritzia eta hausnarketatik abiatuta.

Artikulu honetan¹ deskribatzen dudak ikerketaren bidez bi aldaera horiek kontutan hartzeko baliagarria izan daitekeen metodologia bat esperimendu nahi izan dut. Antropologian ohikoak diren teknikak erabiliz, haur eta nerabeen hizkuntza sozializazioan ematen diren prozesuetara hurbilketa egin dut nerabeen praktiken azterketa eginez eta nerabeen hausnarketetatik abiatuz. Horretarako, 2014ko azaroa eta abenduan Donostiako Zurriola Ikastolako zenbait ikaslerekin batera hizkuntzaren gizarte egoeraren inguruko azterketa bat garatu dut.

Haurtzarotik nerabezarora ematen diren beste praktiken aldaketetatik abiatuta gaztetxoen hizkuntza praktiken aldaketei hurbilketa egiten saiatu naiz. Ikerketa mugatua izan denez azterketaren ondorioak ez dira orokortzeko modukoak. Xedea beste bat izan da: hizkuntza aldaketen fenomenoan sakontzeko bide berri bat esperimendatzea. Nerabeen kolektiboari protagonismoa eman nahi izan diot, hizkuntza aldaketaren fenomenoak zehazki azaldu baino hausnarketa bide berriak ireki nahi izan ditut haur eta nerabeen erabaki-hartze prozesuen protagonismoa azpimarratuz. *Emic* perspektiba batera hurbildu nahi izan

**Ikerketa honen
ibilbidea hipotesi
orokor batetik
abiatu zen:
haurtzarotik
nerabezarora
ematen diren
pareen-arte
gizarte arauen
aldaketek
hizkuntza
erabileraren
aldaketarekin
lotura zuzena
dute.**

dut hizkuntza aldaketen prozesuen inguruko nerabeen ikuspegiari garrantzia emanez.

Azpimarratu nahi nuke, beraz, artikulua honetan azaltzen dudana esperientzia nerabeekin egindako ikerketa bat izan dela. Nirekin batera hama-hiru urteko sei gazte lan egin dute eta haien hausnarketetatik abiatuta sortu da datozen orriotan idatzi dudana guztia. Azterketa eta honako artikulua gazte hauek egindako lana eta Zurriola ikastolak eskaini didan laguntzari esker osatu ahal izan dut.

2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

I

Ikerketa honen ibilbidea hipotesi orokor batetik abiatu zen: haurtzarotik nerabezarora ematen diren pareen-arte gizarte arauen aldaketek hizkuntza erabileraren aldaketarekin lotura zuzena dute. Ez da bat-batean ematen den fenomeno bat; haurtzaro osoan poliki-poliki garatzen da baina 10 eta 14 urte bitarteko garaian nabarmenki agerian geratzen da.

Lau helburu zehaztu nituen azterketa lanerako:

1. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzerakoan ematen diren pareen-arte gizarte arauen aldaketei hurbilketa bat egitea.
2. Nerabeek aldaketa hauek nola deskribatzen eta nola hautematen dituzten jasotzea.
3. Sozializazio arau orokor hauetan ematen diren aldaketek hizkuntz erabileraren aldaketarekin eduki dezaketen harremana aztertzea.
4. Nerabeen hizkuntza mudantzen deskribapenen jasoketa egitea.

Ikuspegi antropologikotik egindako azterketa mikro eta kualitatiboa izan da. Alde horretatik, hiru oinarri metodologikoak erabili ditut. Batetik, hizkuntzaren antropologian azken urteetan erabiltzen ari diren oinarri teoriko-metodologikoak aplikatzen saiatu naiz. Horretarako, batez ere, Jone Miren Hernandez eta Paula Kasares ikerlariak gurera ekarri duten hizkuntza sozializazioaren paradigma erabili dut.

Bestetik, egunerokotasunaren etnografia egin dut. Batez ere, gaur egungo norbanakoari, gizaritari eta kulturari erreparatuz Euskal Herriko hizkuntzaren gaiari hurbildu nahi izan dut. Horretarako *mikro* izan den ikerketa garatu dut, hau da, nerabe talde txiki batean oinarritutako ikerketa izan da. Azken finean, maila *mikrotik* eta egunerokotasunetik abiatuz, hizkuntza-egoeraren gizarte konplexutasuna ulertzeko bide bat egiteko ahalegina izan da.

Azkenik, *Haurtzaro eta nerabezeroaren antropologiak* proposatzen dituen ildoak jarraitu ditut. Ikerketa hau nerabeekin eta nerabeen ikuspegitik egin da; nerabeek beraiek deskribatu dituzte euren praktikak eta nerabeek lagundu didate ikerketaren diseinuan.

Hamahiru urteko sei gaztek osatutako Ikerketarako Junior Talde batek ikerketa etnografikoan parte hartu dute. Ikerketarako Junior Taldea² ikerketa prozesuan lagunduko lukeen nerabe edo haur talde bat osatzean datza. Gurean irizpide hauen araberako Ikerketarako Junior Talde bat osatu da:

- Adina: Hamabi edo hamahiru urte inguruko nerabeak hobetsi dira, Lehen Hezkuntzatik Haur Hezkuntzara ematen diren aldaketak gertu edukitzeko.
- Hizkuntza: euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta nolabaiteko ohitura edukitzea komeni zen. Ez ditut bilatu euskaraz etengabe hitz egiten duten nerabeak; hala ere, egunerokotasunean euskarazko praktikak dituztenak interesatzen zitzaizkidan.

Bi irizpide hauen bila Donostiako Zurriola Ikastola aukeratu nuen. Ikastola hau 1966. urtean sortu zen eta geroztik Donostiako Gros auzoko ikastola izan da. Lau eraikinetan banatuta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxillergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen du eta maila bakoitzean hiru gela ditu (75 bat ikasle maila bakoitzeko).

Ikastetxe honen Bigarren Hezkuntzako irakasleagoren laguntzaren bidez bigarren mailako ikasle guztiei ikerketa honetan parte hartzeko gonbitea luzatu zitzaian eta sei gazte animatu ziren.

Ikerketarako Junior Taldeak egin behar hauek garatu behar izan ditu:

1. Hiru eztabaida taldetan parte hartu: saio hauetan jorratu nahi genuen gaiaren inguruko beraien hausnarketak, perspektibak eta iritziak jasotzearekin batera jasotako informazioa komunean jarri dute eta ikerketaren ondorioak ikerketaren koordinatzailearekin kontrastatu dituzte.
- 2 Informazio jasoketa: nerabeek egun batzuetan eguneroko bat osatu dute beraien eta ingurukoaren hizkuntza praktikak deskribatuz.

Ikerketa lan honetan, transmisioaz hitz egin ordez hizkuntza sozializazioa terminoa eta honek inplikatzeko duena erabili dut.

Hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu: haurrak nola diren sozializatuak hizkuntzaren bidez eta haurrak nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko.

3. MARKO TEORIKOA

Ikerketa hau garatzeko, batez ere, hiru kontzeptu eta garapen teorikoen inguruan aritu naiz: hizkuntza sozializazioa, praktika komunitatea eta hizkuntza mudantzak.

3.1 Hizkuntza sozializazioa

Haur eta gazteen hizkuntza ohituren inguruan hitz egiterakoan belaez belaez jarraipenaz edo hizkuntza transmisioaz aritzea ohikoa da. Soziolinguistika arloan transmisioa hizkuntzen bizitzaren oinarrian dagoen prozesu gisa hartu izan da eta horregatik hizkuntza baten bizi-raupenerako gatzetxoaren hizkuntzaren ezagutza eta erabilera oso garrantzitsua kontsideratzen da.

Ikerketa lan honetan, transmisioaz hitz egin ordez hizkuntza sozializazioa terminoa eta honek inplikatzeko duena erabili dut. Horretarako, euskararen ikerketan Jone Miren Hernandez eta Paula Kasares ikerlariak azken urteetan plazaratu dituzten planteamenduak erabili ditut.

Kasaresen *Euskaldun hazi Nafarroan* lanean (2014: 34) hizkuntza sozializazioa haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua dela dio. Horren arabera (ibid., 34-43) hizkuntza sozializazioaren paradigmak ezaugarri hauek izango lituzke:

- Prozesu jarraitu eta amaigabea da, haurtzarora mugatzen ez dena, heldu jendeak jarrai baitezake sozializatzen rol, estatus edota jarduera berrietan.
- Hizkuntza ikastea eta ezagutza soziokulturalaz jabetzea elkarri jositako bi prozesu dira.
- Hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu: haurrak nola diren sozializatuak hizkuntzaren bidez eta haurrak nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko.
- Hizkuntza sozializazioak izaera elkarreragilea du. Hiztunak gizarte eta hizkuntza aldaketara egokitzeko gauza denez haurrak hizkuntzaz jabetzeari gurasoen erabakiek eta nahiek ez ezik beste faktore gehiagok ere eragiten diote. Honek, transmisioaren goitik beherako eta noranzko bakarreko prozesuaren ideia (gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana) gainditu egiten du. Gurasoek haurren hizkuntza jarduerak eta jarrerak eratzten

dituzte, baina familiaren “hizkuntza ekologian” haurrak eragile dira objektu baino gehiago³.

— Eguneroko hizkuntza jarduerak eta errutinak garrantzia dute eta bide sozializatzaileragikorra dira.

Bestalde, paradigma honen arabera lana egiten duten egileek komunitate kontzeptuari kritika egiten diote eredu berri bat proposatuz: jarduera komunitatea (*community of practice*).

3.2 Jarduera edo praktika-komunitatea

Ikerketa honen objektua praktikei begira formulatu dut: gaztetxoek hizkuntza praktiken aldaketei hurbilketa egitea, haurtzarotik nerabezarora ematen diren beste praktiken aldaketetatik abiatuta. Horregatik, hizkuntzaren antropologia azken hamarkadetan erabiltzen ari den praktika-komunitatearen ideia oso baliagarria suertatu zait.

Janet Holmes eta Miriam Meyerhoff-ek “La comunidad de práctica: teorías y metodologías en investigación de lengua y género” artikuluan aipatzen duten Eckert eta McConnel-Ginet-en definizioa erabili dut praktika-taldea definitzeko:

Un conglomerado de personas que se reúnen alrededor de un compromiso mutuo para llevar a cabo algo. Formas de hacer cosas, formas de hablar, creencias, valores, relaciones de poder – en una palabra: prácticas – surgen en el curso de ese esfuerzo mutuo. Como un constructo social, una CP es diferente de la comunidad tradicional, ante todo porque se define simultáneamente por su membresía y por la práctica en la cual esa membresía se emplea. (Holmes eta Meyerhoff, 1999)

Autora hauek praktika-komunitatearen kontzeptua hizkuntza-komunitatearekin (*speech community*) alderatzen dute eta testuinguru sozialean hizkuntza aztertze askoz erabilgarriagoa dela diote (Hernandez, 2014)

Praktika-komunitatea kontzeptuak norbanakoak bere bizitzan komunitate aniztan parte hartzen duela onartetik abiatzen da. Hizkuntza-komunitatean, ordea, hizkuntza arauak partekatzen dituen homogeneoa den komunitate bat irudikatzen da; taldea norbanakoaren gainetik dago. Horregatik, hizkuntza-komunitatea aztertzerakoan *makroagoa* den ikuspegia erabiltzen da. (ibid.)

Paula Kasaresek dio jarduera-komunitatea ez dutela kideek bakarrik definitzen ez eta jarduerak bakarrik ere, biak lotzen dituzten harreman

Ikerketa honen objektua praktikei begira formulatu dut: gaztetxoek hizkuntza praktiken aldaketei hurbilketa egitea, haurtzarotik nerabezarora ematen diren beste praktiken aldaketetatik abiatuta.

Praktika-komunitatea kontzeptuak norbanakoak bere bizitzan komunitate anitzetan parte hartzen duela onartzetik abiatzen da. Hizkuntza-komunitatean, ordea, hizkuntza arauak partekatzen dituen homogeneoa den komunitate bat irudikatzen da.

kontzeptuek baizik. Horrek dakarren ondorioetako bat komunitatearen ertzak lauso eta nahiko irekiztat ikustea da.

Jarduera komunitatearen ereduak edozein taldetan aniztasuna dagoela aurreikusten du eta komunitate batean baino gehiagotan (sarritan gainjarrita egonda) parte hartzeko eredu dinamiko eta aldakorak onartzen ditu. (Kasares, 2014: 42)

Honek guztiak, hizkuntza prozesu sozialak eta norbanakoak dinamiko eta aldakorak direla onartzera behartzen gaitu. Ez dira egitate egonkorak bilakaeran dauden fenomenoak baizik. Horregatik, hizkuntza mudantza terminoak erabilgarria izango zaigu dinamikotasun hau ulertzeko eta aztertzeko.

3.3 Hizkuntza mudantza

Ikerketa honen xede nagusia hizkuntza aldaketen nondik norakoak esploratzea izan denez, Joan Pujolar-ek erabiltzen duen hizkuntza mudantza (*mudes lingüístiques*) kontzeptua oso erabilgarria suertatu zait. Honela definitzen du Pujolarrek hizkuntza mudantza terminoa:

Emprem el concepte de “muda lingüística” per referir-nos tant als canvis com a les permanències lingüístiques que es troben en qualsevol contemplació dinàmica dels usos lingüístics, és a dir, en la comparació entre els usos lingüístics en dos àmbits o camps relacionals o en dos moments diferents. El concepte es pot projectar també a la comparació entre diferents posicionaments lingüístics dels individus, ja siguin relatius a usos, ja ho siguin a adscripcions simbòliques d'identificació lingüística. (Pujolar, Gonzalez, Font eta Martínez, 2010: 45)

Honen arabera, hizkuntza praktika dinamiketan gertatzen diren aldaketak eta iraunkortasunak hizkuntza mudantzak lirateke. Mudantzak denboraren araberako konparazioetan agertzen dira, iraganean erabilitako hizkuntza (lehen hizkuntza adibidez) eta gaur egun (ohiko hizkuntza) erabiltzen denaren artean. Baina mudantzak ere ohiko erabileraren hizkuntza eta identitate hizkuntzaren artean gertatzen dira.

Ikerketa soziolinguistikoetan erabiltzen diren profilak eta kategoriak oso estatikoak dira eta inguru eleanitzetako hiztunen praktikak oso konplexuak dira. Alde horretatik, Pujolarrek adierazten digu (2010b: 67) hizkuntza mudantzen azterketak kategoría estatikoekin apurtzearekin batera hiztunen bizitzan gertatzen diren aldaketen berri ematen digula.

Kataluniako gazteekin egindako ikerketan Pujolarrek (ibid: 68) bost aldaketa une bereizi ditu: 1. Eskola, 2. Institutua, 3. Unibertsitatea, 4. Lan mundua eta 5. Pribatu mailan (bikotea, lagunak, familia). Nik garatutako ikerketan bigarren unean gertatzen den hizkuntza mudantzei begiratu diet.

Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzerakoan ikasle aldaketa eta nahasketa ematen da. Askotan, auzo eta herri ezberdinetako pertsonen nahasketa ekartzen du eta, askotan, hizkuntza ohitura ezberdinen nahasketa ekar dezake. Batzuentzat familia hizkuntza ikusgai egiteko aukera izan daiteke. Bestetik, garai honetan agertzen dira gazte kulturaren ohikoak diren talde antagonismoak. Testuinguru honetan, hizkuntza bat hitz egiteak talde edo tribu baten partaide bihurtzea ekar dezake. Hizkuntza, gazte taldea identifikatzen duen etiketa gisa erabiltzen da.

Gai honetan kokatzeko interesgarria izan daiteke gazte estiloei buruz Carles Feixak egindako lana gogora ekartzea. Feixak *De jóvenes, bandas y tribus* liburuan honela definitzen du estiloa kontzeptua:

El estilo puede definirse como la manifestación simbólica de las culturas juveniles, expresada en un conjunto más o menos coherente de elementos materiales e inmateriales, que los jóvenes consideran representativos de su identidad como grupo. (Feixa, 1990: 97)

Estilo zehatz bat definitzeko kultura elementu ezberdinen konbinaketa ematen da. Feixak hauek azpimarratzen ditu: hizkuntza, musika, estetika, kultura produkzioak eta jarduera edo erritu bereziak (ibid: 100). Hizkuntza, beraz, garrantzia izaten du gazteen talde identitateak definitzeko.

4. ANALISIA

I Zurriolako gazteekin garatutako ikerketaren analisia marko teorikoan zehaztutako kontzeptuen arabera izan da. Batetik, gaztetxoek haurtzarotik nerabezarora ematen diren praktiken analisia dago. Bigarrenik, praktika aldaketa eta hizkuntza praktiken artean dagoen harremana zehazten saiatu naiz. Azkenik, nerabezeroan ematen den hizkuntza-mudantzen ezaugarrien analisia egin dut.

4.1 Praktikak

Ikerketa honen objektua praktikei begira formulatua dagoenez, gaztetxoekin landutako lehen gaia beraien egunerokotasunean dituzten praktikei buruzkoa izan da. Lehen Hezkuntzatik Haur Hezkuntzara

Mudantzak denboraren arabera konparazioetan agertzen dira, iraganean erabilitako hizkuntza (lehen hizkuntza adibidez) eta gaur egun (ohiko hizkuntza) erabiltzen denaren artean. Baina mudantzak ere ohiko erabileraren hizkuntza eta identitate hizkuntzaren artean gertatzen dira.

Gaztetxoek nabarmentzen dituzten aldaketak ez dutela praktikekin horrenbesteko lotura eta aldaketa nagusienak norbanako jarrera eta emozioekin eta pareen arteko eta helduekiko harremanekin lotura dutela.

ematen diren aldaketei buruz galdetu diedanean sentimendu, emozioekin edo jarrerekin lotutako erantzun kopurua oso handia dela azpimarratu behar da. Esan daiteke gaztetxoek nabarmentzen dituzten aldaketak ez dutela praktikekin horrenbesteko lotura eta aldaketa nagusienak norbanako jarrera eta emozioekin eta pareen arteko eta helduekiko harremanekin lotura dutela. Alde horretatik, jasotako erantzunak nerabezaroari ezartzen zaizkion ohiko ezaugarriak dira: munduaren kontra, guraso eta irakasleekin gatazkak, pareen arteko gatazkak...

Eztabaida taldeetan, ordea, neraberen ohiko praktikan oso txertatuak dauden jarduerak etengabe aipatu dituzte: eskolaz kanpokoak, kirola, telebista, zinea, musika eta Internet. Agian, hasiera batean haurtzarotik nerabezarora pasatzerakoan ez dute nabaritzen jarduera horietan aldaketa handiegirik ematen denik baina banaka aztertzerakoan ikusiko dugun bezala, jarduera horietan aldaketak gertatzen dira. Ikus ditzagun, bada, praktika hauek banaka.

4.1.1 Aisialdi praktikak: panpinak bota edaten hasteko

Nerabezaroan aisialdiko praktikan aldaketa ematen dira. Aipatu duten bezala DBH-ra pasatzerakoan lagun taldeetan eta koadriletan aldaketak gertatzen dira eta neska eta mutilen arteko harremana aldatzen da. Horrek lotura du asteburuetan edo opor garaietan egiten dituzten jarduerekin. Gurasoekin planak egiteko joera pixkanaka murrizten joaten da eta lagun taldearekin aisialdia pasatzeko joera handitzen doa. Alde horretatik, ordutegiaren aldaketak aipatu dituzte eta honek praktika berriak garatzeko aukera ematen die. Gaztetxo hauen kasuan Groseko Katalunia plazan lagunartean egoteko joera dute. Gros auzoan, nerabeak elkartzen diren ingurunea hori dela dirudi.

Lagunarteko plan hauetan haurtzaroan egiten ziren jolasak baztertuak geratzen dira eta “panpinak bota” egiten dituztela aipatuz laburbildu daiteke joera hori. Baina aisialdi praktika berriak agertzen hasten omen dira. Nerabeek diotenez “Batzuk erretzen eta edaten hasten dira”. Ez dirudi, halere, hamahiru urtekoen artean oso ohikoak diren praktikak direnik baina joera bat adierazten dutela esango nuke.

4.1.2 Eskolaz kanpoko jarduerak eta kirola: ordutegiaren dantza

Deigarria da gazteekin egindako lehen dinamikan eskolaz kanpokoak agertu ez izana. Datu hau harrigarria suertatu daiteke adin honetako gaztetxoek horrelako jardueri eskaintzen dieten denbora zein handia

den ikusita. Sei kidek osatzen zuten Junior Taldea eta bat izan da gai honetan salbuespena. Musika klaseak jasotzen ditu astean behin eta horretaz aparte ez du bestelako eskolaz kanpoko jarduerarik egiten. Gainontzekoek aste barruko egun guztietan eskolaz kanpoko jardueraren bat, gutxienez, egiten dute. Horrek esan nahi du gaztetxo hauen eguneroko eginbeharren ordutegia arratsaldeko zazpiak arte luzatzen dela eta askotan zortziak arte.

Haurtzarotik nerabezarora ematen diren aldaketez galdetuta eskolaz kanpokoak ez agertzeak, beraz, eremu horretan aldaketa handirik ez dela ematen adierazi dezake. Ez ditut nahiko elementuak hori baieztatzeko baina hizkuntza praktikei begira alor garrantzitsua da eta zehatzago ikertu beharko litzateke. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 2011-n egindako Arrue izeneko ikerketan argi agertzen da DBH-ko ikasleen hizkuntza erabileran eragiten duen faktore garrantzitsuen eskolaz kanpoko jarduera antolatuetako erabilera dela. (Eusko Jaurlaritzak, 2013: 61)

4.1.3 Input mediatikoa: telebistatik mugikorrera

Alor honetan ere deigarria da hasierako erantzunetan telebista, Internet edo musika bezalakoak ez agertzea. Ziur aski DBH-ko lehen urteetan ez da horrenbesteko aldaketa ematen ikus-entzunezko hauen kontsumoetan.

Musikari dagokionez ikerketan parte hartu duten nerabeek ez dute aipamen askorik egin. Eguneroko bakar batean agertzen da musikari erreferentzia etxean Euskadi Gaztea irratian entzuten dutela esanez eta ingelesko musika entzuteko ohitura islatuz. Gaiari buruz galdetuta mugikorrean zuten musikari errepassoa egin zioten ingelesez eta gaztelaniaz abesten duten musikariak aipatuz: Ariana Grande, One Direction, Shakira, Melendi, Meghan Trainor, Jenifer Lopez, Katy Perry, Selena Gomez, Sam Smith... Duela hiru urte zer entzuten zuten galdetzerakoan ez dute gauza handirik esan baina aipatutakoak ere gaztelaniaz edo ingelesez abesten zuten musikariak ziren: Patito Feo, Jonas Brothers eta Hannah Montana. Ziur aski, beraz, adin hauetan entzuten duten musikaren hizkuntzan ez da aldaketa handiegirik ematen eta aldaketa egotekotan lehenago ematen da.

Telebistari dagokionez bai aipatzen dituzte aldaketak. Marrazki bizidunak ikusteko adina ez dutela adierazi zuten. Ikusten dituzte baina ezin dute aitortu, hurren kontuak kontsideratuak baitira *“Esaten baduzu Doraemon ikusten duzula esaten dizute ke pringau!”*. Aipatu dituzten

programa guztiak gaztelaniazkoak dira: Vaya semana, La que se avecina, Castle, Aida, Con el culo al aire, Dos hombres y medio, Mentecriminales, futbola... Eguerdian edo arratsaldean ikusten dutela diote baina ez dirudi hainbeste ikusten dutenik: *“Nik lehen ikusten nun telbista pilo bat ta orain ez dut ikusten...bakarrikan aspertzen banaiz... ba, ez dago inor wathappean... telebistan zer dagon ikusiko dut...”*.

Bestalde, telebista ikusteko denbora askorik ez dutela adierazi zuten eta asteburuetan gehiago ikusten dutela zioten. Telebista ikusi baino denbora gehiago pasatzen dute mugikorrarekin. Txikiagotan, aldiz, telebista aurrean denbora gehiago igarotzen zuten. Ziur aski, input mediaticoari dagokionez praktika aldaketa nabarmenena arlo honetan gertatzen da: telebista kontsumoa gutxitzen da mugikorraren erabilera handitzearekin batera.

Mugikorrak, beraz, nerabeen eguneroko praktiketan oso presente dagoen elementua da. Sare sozialen erabilera da gehien aipatzen dute mugikor bidezko jardueretan. Whatsapp, Twitter eta Instagram bezalako tresnak erabiltzen dituzte lagun artean harremanetan egoteko. LH-tik DBH-ra ematen den aldaketa honen datu adierazgarria ikastetxe barruan mugikorren erabilerak duen arautegia litzateke. Behaketan ikusi dudana bezala Bigarren Hezkuntzako ikasleek ikasgeletatik kanpoko aisialdi garaietan mugikorra erabili dezakete. Lehen Hezkuntzakoek, ordea, ez dute mugikorra erabiltzeko baimenik.

Zinea ere atera den aisialdiko jardueren artean dago. Zinema aretoetan edo etxean ikusten dituzten filmak gaztelaniaz dira. Ikusi dituzten azken filmen buruz galdetuta hauek aipatu zituzten: Gose jokoak (Los juegos del hambre), Dos tontos todavía más tontos, Mortadelo, Los corredores del laberinto, El Hobbit... Euskarazko filmak ez zaizkie erakargarriak egiten *“Niri adibidez ez zaizkit gustatzen euskarazko pelikulak... kriston rollazoak dira... ta ez dakit zergatik.”*

Atal hau amaitzeko bideo jokoak aipatu beharko genituzke. Junior taldeko kideen artean bakar bat da jarduera honen zale. Mutilen artean askoz zaletasun handiago dagoela dirudi. Joko hauetan sarean aritzen direnez hizkuntza praktikari begira garrantzia duen fenomeno da. Junior Taldeko kide honek dionez bera gaztelaniaz, frantsesez, euskaraz eta ingelesez jolasten da bideo jokoetan, sarean jolasten dauden beste pertsonen arabera.

4.1.4 Etxeko eta eskolako praktikak: zailtasunak eta gatazkak

Aipatu dugun bezala, bi arlo hauetan nerabeek aipatu dituzten aldaketak praktketan baino harremanetan zentratu dituzte. Elkarrizketetan nabari da gurasoekin planak egiteko joera pixkanaka murrizten joaten dela lagun taldearekin denbora gehiago pasatzeko joera handituz. Hori litzateke, beraz, praktika hauetan ematen den aldaketa nabarmenena. Dena den, gertuko familiarekin jarduera batzuk egiten jarraitzen dutela ikusten da. Aipatu dituztenen artean opor planak eta familiako bazkariak daude. Eskolan ere aldaketak irakasleekin dituzten harremanetan eta ikasgaien zailtasunean daudela dirudi. Orotar, irakasleekin eta gurasoekin harremanetan aipatzen duten aldaketa nagusia gatazka hitzarekin definitu daiteke haserreak eta istiluak ugariagoak baitira.

4.1.5 Laburbilduz: praktiken aniztasuna handituz

Orain arte ikusitakoa laburbilduz esan daiteke egindako ikerketan haurtzarotik nerabezarora dauden praktiken aldaketei begira ez direla horrenbeste jarduera ezberdinak azaldu edo, gutxienez, nerabeek ez dute hainbeste jarduera aldaketarik nabaritzen. Jarrera eta egoera emozionalen aldaketak, ordea, askoz garbiago agertu dira.

Beharbada aldaketa nagusia ez da praktika motan nabaritzen, praktika aniztasunean baizik. Hau da, nerabeek egiten dituzten jarduera kopurua handiagoa izateaz gain, jarduera horietan parte hartzen duten adin berekoak ere “anitzagoak” dira. Ordu arte egiten zituzten praktikak ikastetxe bereko lagunekin eta familia ingurukoekin garatzen zituzten nagusiki. Nerabezaroen beste ikastetxetako eta beste auzoetako nerabeekin harremanetan jartzen dira eta zenbait jardueretan talde berriak osatzen dituzte: larunbatetan auzoko plazan geratzen direnean, dantza edo kirol entrenamenduetan, ingelesko klaseetan, Internet bidezko sare sozialetan edo bideo jokoetan ... Esan daiteke, beraz, nerabeen praktika komunitateen aniztasuna handitzen dela eta honek hizkuntza praktketan ondorioak ditu.

4.2 Hizkuntza praktikak

Marko teorikoan aipatu dugun bezala praktika-komunitatea kontzeptuak norbanakoak bere bizitzan komunitate aniztetan parte hartzen duela onartzetik abiatzen da. Ikerketan parte hartu duten gazteak praktika-komunitate anitzen parte dira. Hartu dezagun, adibide gisa, Junior Taldeko neska baten kasua.

Laburbilduz esan daiteke egindako ikerketan haurtzarotik nerabezarora dauden praktiken aldaketei begira ez direla horrenbeste jarduera ezberdinak azaldu edo, gutxienez, nerabeek ez dute hainbeste jarduera aldaketarik nabaritzen. Jarrera eta egoera emozionalen aldaketak, ordea, askoz garbiago agertu dira.

Beharbada aldaketa nagusia ez da praktika motan nabaritzen, praktika aniztasunean baizik.

Donostiako Egia auzoan bizi da eta asteburuetan egiten dituen aisialdi planak auzo horretako lagun taldearekin egiten ditu. Ikastolan pasatzen dituen orduetan, ordea, ez da lagun hauekin egoten beste ikastetxe bazuetan ikasten dutelako. Eskubaloian auzoko taldean aritzen da, beraz, praktika-komunitate honen parte ere bada eta musika eskolara eta euskal dantzara ere joaten da. Ziur aski, neska honek egiten dituen jarduera guztietan ez du partaidetza sentimendu berdina baina modu batean edo bestean praktika-komunitate ezberdinetako kidea da.

Gainontzeko gaztetxoek deskribatu duten egunerokotasunean ere antzeko aniztasuna agertu da eta kasu guztietan honek hizkuntza praktiketan ondorioak ditu. Adibideko neskarekin jarraituz, bere egunerokoaren deskribapenei begiratzen badiogu, praktika-komunitateen araberako hizkuntza egoera ezberdinekin topo egiten dugu.

Ikastolako lagunekin euskaraz aritzen da baina tarteka gaztelaniara pasatzen dira eta etxeko bidean ere erdara da nagusi. Auzoko lagunekin aisialdiko planetan “*euskañol*” moduko bat erabiltzen dutela dio eta *whatsappez* bietan aritzen direla. Eskubaloian gaztelaniaz egiten dute, euskal dantzan, ordea, euskara da hizkuntza nagusia.

Beste gazteek deskribatutako jardueretan ere antzeko hizkuntza egoerak agertu dira. Honek panorama konplexu eta dinamiko baten aurrean kokatzen gaitu. Hala ere, gaztelania eta euskara agertzen diren egoera eta praktika ezberdin hauetan maila berean ez daudela ohartarazi behar dugu; gizarte diglosiko baten desoreka nagusitzen da. Hau da, nerabeek deskribatzen dituzten praktika-komunitate gehienetan gaztelania erabiltzen da. Euskara ikastola barruko jardueretan eta lagun talde edo jarduera zehatz batetan (euskal dantza izan da aipatu duten bakarra) agertzen da eta hauetan ere, gehienetan, gaztelaniarekin batera.

Alde horretatik ikastolatik kanpoko praktika-komunitateetan euskara ia erabat desagertzen dela argi agertzen den fenomeno da. Adibide gisa taldekide batek hockey kirol praktikari buruz egunerokoan egiten duen deskribapena dugu:

Gaur bi entrenamendu eduki ditut. Lehenengoan guztiak euskaraz hitz egin dugu baina bigarrean entrenatzailea Argentinakoa delako erdaraz hitz egin dugu.

Egoera azaltzeko eskatuta bi hockey entrenamendu egiten dituela esan zigun. Lehena ikastolako taldearena da eta euskaraz da. Bigarrena Errealarekin egiten du (Donostiako eskola ezberdinetako neskek parte

hartzen dute) eta erdaraz da. Baina adierazgarriena egunerokoan aurrerago deskribatzen duen puntu honetan dago: “Hockey-eko partida bat ikustera joan naiz eta nire lagunekin erdararaz hitz egin dut”.

Honi buruz galdetuta neskak adierazi zigun nagusiago direnen hockey partidak ikustera joaten dela asteburuetan. Errealean berarekin jokatzeko duten beste eskoletako lagunekin joaten da Zurriolakoek ez dutelako joan nahi. Ekintza eta Lizeo-ko ikastoletako⁴ lagunak direla aipatu zuen eta euskaraz dakiten arren erdaraz hitz egiten dutela. Egoera horretan entrenatzaile argentinarrak ez dago baina, beharbada, oso barneratua dute praktika-komunitate horren hizkuntza gaztelania dela.

Deskribatutako praktika hauen bidez haur eta gazteen hizkuntza bereganatze prozesuan hizkuntza sozializazioa kontzeptua transmisiorena baino askoz erabilgarriagoa dela ikusten dugu. Familian eta eskolan egiten den goitik beherako hizkuntza transmisioak garrantzia du baina goiko adibideetan ikusi dugun bezala beste hainbat faktoreen eragina oso garrantzitsuak dira. Jarraian, argiago ikusiko dugu nerabezaroan hizkuntza bat erabiltzeko edo hizkuntza batetik beste batera mudantza egiteko pareen arteko eragina edo familia eta eskolatik kanpo dauden beste gizarte faktore batzuk duten garrantzia.

4.3 Hizkuntza mudantzak

Ikerketa lan honen helburu nagusia haurtzarotik nerabezarora euskal hiztunen artean ematen den hizkuntza mudantzaren fenomenoa aztertzea da. Marko teorikoan aipatzen zen bezala, hizkuntza mudantzak hizkuntza praktika dinamiketan gertatzen diren aldaketak eta iraunkortasunak dira.

Euskal Herrian haurtzarotik nerabezarora pasatzerakoan euskararen erabileran jaitsiera nabarmena ematen dela nahiko onartutako eta zabalduko egitea da. Soziolinguistikan egindako datu bilketek egoera konfirmatu dute eta ikerketa lan honetako aurreko orrietan egin dugun analisisetan ere nahiko garbi geratu da nerabezaroan praktiken aniztasuna handitzearekin batera, jarduera hauetan parte hartzen duten kideen “aniztasuna” ere handitzen dela eta honek guztiak hizkuntza praktiketan ondorioak dituela.

Horrekin batera, jarduera zabaltze honek euskararen erabileraren jaitsiera nabarmena dakarrela ikusi dugu nerabeek deskribatutako egunerokotasunaren ekintzen bidez. Gainera, Junior Taldean parte hartu duten kideek hasieratik aipatu dute haurtzarotik nerabezarora pasa-

Ikerketa lan honen helburu nagusia haurtzarotik nerabezarora euskal hiztunen artean ematen den hizkuntza mudantzaren fenomenoa aztertzea da. Marko teorikoan aipatzen zen bezala, hizkuntza mudantzak hizkuntza praktika dinamiketan gertatzen diren aldaketak eta iraunkortasunak dira.

Nerabezaroan gazte kulturaren ohikoak diren talde antagonismoak agertzen dira. Testuinguru horretan, hizkuntza bat hitz egiteak talde edo tribu baten partaide bihurtzea ekar dezake. Hau da, gazte taldeak identifikatzen duen etiketa gisa erabiltzen da hizkuntza.

tzerakoan euskararen erabileran jaitsiera nabarmentzen dela. Une hau litzateke, beraz, Pujolarrek (2010b: 68) deskribatzen dituen bost mudantza uneren artean bigarrenarekin bat egiten duen hizkuntza aldaketa unea: institutua.

Pujolarrek dio mudantza une horretan Katalunian hiru fenomeno ematen direla eta nik hiru puntu horiek jarraitu ditut Junior Taldeko kideek deskribatutakoak oinarri hartuta.

4.3.1 Ikasle aldaketa eta nahasketa gutxi

Pujolarren arabera Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzerakoan ikasle aldaketa eta nahasketa ematen da. Askotan, auzo eta herri ezberdinetako pertsonen nahasketa ekartzen du eta, askotan, hizkuntza ohitura ezberdinen nahasketa ekar dezake. Zurriola ikastolan garatu dugun ikerketen datuak ez digute puntu honi buruz informazio handirik ematen.

Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara aldaketak ematen dira. Batetik, LHko azken bi ikasturteak eta DBH-koak eraikin berean jarraitu arren espazioak eta ordutegiak nahiko ezberdinak dira. Bestetik, DBH-n Gros inguruko auzo batzuetatik (Egia, Intxaurren, Bidebieta...) ikasle berriak datoz.

Ez dut fenomeno hau sakonki aztertu eta Junior Taldeko kideek ere ez dute gai honi buruz aipamen handiegirik egin baina ez dirudi Zurriola ikastolaren kasuan eragin handirik duen fenomeno denik. Beharbada, Donostiako beste zenbait ikastetxeetako errealitatea aztertzea interesgarriagoa izan daiteke egoera hau ematen ote den ikusteko.

4.3.2 Talde antagonistak eta tribu identitateak: euskara, mendiko botak eta Altus motxilak

Nerabezaroan gazte kulturaren ohikoak diren talde antagonismoak agertzen dira. Testuinguru horretan, hizkuntza bat hitz egiteak talde edo tribu baten partaide bihurtzea ekar dezake. Hau da, gazte taldeak identifikatzen duen etiketa gisa erabiltzen da hizkuntza. (Pujolar, 2010b: 68)

Honako hau gure ikerketan jasotako testigantzetan etengabe atera den puntua izan da. Gorago aipatu dudana bezala adin honetako gazteak praktika komunitate anitzen partaideak dira baina talde guztiek ez dute, kanpora begira gutxienez, pisu bera gazteen identitatean. Badirudi

gazte hauen talde identitatea oso markatua datorrela ikasten duten ikastetxearengatik. Junior Taldeko neska batek kontatzen du dantzako lagun batek esan ziola “Zurriolan dira euskaldunak. Pentsatzen nuen hori zinela, “pringatu” bat beti dagoena euskaraz hitz egiten...”.

Auzoko ikastetxe bakoitzari etiketa bat ezartzen zaio, honakoak “pijoak” dira, hangoak “choniak” eta Zurriola ikastolaren etiketa ezartzeko euskara da ezaugarri nagusia: “euskalduneros”. Gainontzeko ikastetxeok Zurriola ikastola eta euskara lotzen dute, horrek adieraziko luke, beste eskoletan euskararen presentzia oso txikia dela. Alde horretatik, esan daiteke ikerketa parte hartu duten nerabeek Zurriola Ikastolako kide gisa euskararekin identifikatutako praktika komunitate baten partaideak direla sentitzen dutela. Gazte talde honen estiloan hizkuntzak karga handia edukiko luke.

Dena den, estilo marka hau kanpotik ezarrita dagoenez (talde antagonistek definitzen dute) eta helduen zehaztutako arau sozialekin bat datorrenez (gurasoek eta irakasleek euskaraz hitz egiteko esaten diete) ezaugarri honekiko deserosotasuna nabari zaie.

Gainera, euskararen etiketa hau praktika komunitate baten partaide gisa identifikatzeko baliagarriak dira baina beste praktika talde batzuetan arazotsuak izan daitezke. Gorago esan dudan bezala nerabeek praktika komunitate ezberdinetan parte hartzen dute eta, goiko adibidean argi ikusten zen bezala, Gros auzoko nerabeen artean euskaraz hitz egitea ez da prestigioa ematen duen ezaugarria.

Euskara, beraz, ikastolako nerabeen identitate ezaugarria da baina ez dute harrotasunez bizi. Nolabait, besteek ezartzen dieten ezaugarria da eta prestigiorik ez duena. Izan ere, talde antagonisten artean etiketak ezartzen direnean ohikoena ezaugarri negatiboak erabiltzea baita. Dantzako adibideekin jarraituz, Junior Taldeko partaide batek bere egunerokoan idatzitako pasarte batek egoera horri erreferentzia egiten dio:

Dantzara joan naiz eta nerekin dantza egiten dutenak euskera “pringatuentzat” dela aipatu du eta hortik aurrera erderaz hitz egiten hasi dira eta horrela bakoitza bere etxera joan arte.

Beste azalpen honetan ere antzeko egoera deskribatzen dute:

Es que depende zeinekin hitz egin behar duzu.. alo.. hizkuntza bat... osea, ez da hitz egin behar duzula baina bai, igual ikastolan euskaraz, gero zoaz extra-

Bezala adin honetako gazteak praktika komunitate anitzen partaideak dira baina talde guztiek ez dute, kanpora begira gutxienez, pisu bera gazteen identitatean. Badirudi gazte hauen talde identitatea oso markatua datorrela ikasten duten ikastetxearengatik.

**Gaztetxoek
gaztelaniaz hitz
egitea talde
identitatearekin
baino heldu
sentitzearekin
lotu dute.
Diotenez,
batzuentzat
“guaiagoa”
sentitzea
“handiago”
(helduago)
sentitzea da.**

eskolar bat egitera eta euskaraz edo erdaraz baina depende ze jendearekin hitz egiten duzu euskaraz edo erdaraz. Euskaraz hitz egiten baduzu jendearekin gaizki begiratzen dizute.

Gauza bera gertatzen da aisialdiko jarduera ez antolatuetan. Ikerketan parte hartu duten gazteek Groseko Katalunia plazan elkartzen dira lagunekin asteburuetan eta erdaraz egiten dutela diote. Ikastolako lagun taldea izan arren egoera horretan euskaraz egitea ez dirudi prestigioduna denik. Junior Taldeko gaztetxoek behin eta berriro aipatu dute bere adinkideek erdaraz “guaiagoak” sentitzen direla.

Diotenez, zenbait nerabek gaizki gelditzeko beldurra dute “*Zer esango dute nitaz euskaraz hitz egiten badut eta horrelako gauzak*”. Hori litzateke, beraz, Pujolarrek aipatzen duen identitate hizkuntza (euskara) eta ohiko erabileraren (gaztelania) artean ematen den hizkuntza mudantzaren adibide garbi bat.

Dena den, gaztetxoek gaztelaniaz hitz egitea talde identitatearekin baino heldu sentitzearekin lotu dute. Diotenez, batzuentzat “guaiagoa” sentitzea “handiago” (helduago) sentitzea da. Hau da, nerabee heldu sentitzeko gaztelaniaz hitz egitearen beharra sentituko lukete. Egindako ikerketan ez da gehiegi atera den faktorea baina adin honetan hizkuntza mudantzak ulertzeko interesgarria izan daitekeen ezaugarria dela uste dut.

Baina talde estiloa hizkuntzarekin lotuta datorrenean beste etiketa batzuk ere ezartzen dira. Nolabait, hizkuntzak berak (kasu honetan euskarak) gizartean orokorrakoak diren beste aurreiritzi batzuk ekarri ohi dituela esan genezakeen. Nerabe batek zion ezaugarri edo aurreiritzi batzuk ezartzen zaizkiela ikastetxe bakoitzeko ikasleei; horrela, besteentzat Zurriolakoak lirake euskaraz hitz egiten duten bakarrak eta hizkuntza ezaugarri honekin batera haien estiloan janzkera bezalako elementu estetikoak pisua hartzen dute:

Dakate, como... Zurriolakoak; botas de monte, mochila Altus, beti euskaraz...
Baina horrek ez du esan nahi euskaraz hitz egin behar dugunik.

Alderantzizko noranzkoan ere, noski, identifikazio hauek gertatzen dira. Junior Taldeko gaztetxoek diote beste eskoletakoek “guaiagoak” direla uste dutela gaztelaniaz hitz egiteagatik eta *pijo* edo *choni*-en tribuak etiketatzen dituzte, janzkera edo bestelako ezaugarri estetikoak deskribatuz.

Laburbilduz, beraz, hizkuntza bat hitz egiteak talde edo tribu baten partaide bihurtzea dakar. Gure ikerketan aztertutako kasuan euskara Zurriola ikastolako ikasleen talde identitate ezaugarri litzateke. Baina, etiketa hau arazotsua suertatzen da euskara ez delako adin honetan prestigioa duen hizkuntza eta Zurriolako nerabeen artean etiketa honi uko egiteko beharra sentitzen dute beste praktika komunitateetan era egokian agertu ahal izateko.

4.3.3 Euskarari uko: pasilloetan euskara galtzen da

Pujolarrek dio (2010b: 68) adin tarte honetan, Katalunian, katalana hitz egiteari uko egiten dion taldea agertzen dela eta baita, arrazoi akademikoak medio, gaztelania lehen hizkuntza duten batzuk katalanaren erabilera sozialean murgiltzen direnen taldea ere.

Ikusi dugun bezala, Zurriola ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean euskarari uko egiteko joera nabarmena da. Aurreko puntuan luze eta zabal azaldu dudan moduan, ukapen hau hizkuntzaren prestigioarekin (prestigio ezarekin) lotutako fenomeno da. Junior Taldeko kideetako batek oso grafikoki azaldu zuen bezala: pasillotan euskara galtzen da. Honela idatzi zuen bere egunerokoan:

Gizarte klasean ez dago inor gazteleraz hitz egiten, denak euskeraz hitz egiten daude. Klase batetik bestera euskera oso gutxi erabiltzen da nahiz eta gelan egon. Pasillora ateratzean ere euskera galtzen da. Atarian persona batzuk euskeraz hitz egiten dute baina beste batzuk berriz erderaz hitz egiten hasten dira. Atarian eta eguerdian txikiak euskera gehiago erabiltzen dute eta handiak gutxiago.

Gazte hauen ustez pasilloetan euskara galtzen da jendea “guaiago” sentitzen delako erdaraz hitz egiten. Gela barruan erdara eta euskara entzun daitezke baina ikasgelatik ateratzerakoan erdara nagusi omen da.

Zurriola ikastolak euskararen erabilera handitzeko lan handia egiten du eta gazteek irakasleen presioa nabaritzen dute. Dena den, euskararen erabilera handitzeko garatzen diren jarduerak baloratzerakoan nerabeen artean eszeptizismoa nabaritzen da. Horren adibidea “Semaforoan dinamika” da. Ikastetxeko pasilloetan paperezko semaforoak jarri dituzte zer hizkuntza erabiltzen dute adierazteko: semaforo gorriak gaztelaniaz aritzen direla esan nahi du, berdeak euskaraz ari direla adierazten du. Horrekin batera, gela bakoitzak egoera aldatzeko konpromiso bana hartu du baina taldekideek diotenez ez dute uste ezer aldatuko denik,

Gazte hauen ustez pasilloetan euskara galtzen da jendea “guaiago” sentitzen delako erdaraz hitz egiten. Gela barruan erdara eta euskara entzun daitezke baina ikasgelatik ateratzerakoan erdara nagusi omen da.

konpromisoa hartzeko une berean ikaskide batzuk beteko ez dutela adierazi zutelako.

Bestalde, ikasleen artean euskarari uko egin dioten eta euskarari uko egin ez dionik ikaskideak identifikatuak dituzte. Gaztetxoan arabera, ikaskide batzuekin erdaraz egitea ateratzen zaizu eta besteekin euskaraz. Ikasle hauek deskribatzeko garaian oso fenomeno adierazgarria gertatzen da, auzo mailan Zurriolako ikasleei ezartzen zaizkien etiketen antzekoak ezartzen dizkiete Zurriola barruko ikasleek euskaraz beti aritzen diren kideei. Hauei buruz hitz egiterakoan honelako kalifikatiboak erabili dituzte: *“da super baxka” “oso baxko da”*.

Laburbilduz, beraz, Pujolarrek institutu unerako deskribatutako hiru fenomenoetan oinarrituta esan daiteke Zurriola Ikastolan institutuko unean ematen diren hiru ezaugarriak modu ezberdinean agertu direla. Nire ustez, hemen aztertutako testuinguruan bigarren fenomeno da (talde antagonistak eta tribuen identitatea) argien agertzen zaiguna eta pisu handiena duena.

Lehen fenomenoa (ikasle aldaketa eta nahasketa), ordea, ez da apenas ageri. Alde horretatik, gure ikerlanean ikastetxean gertatzen diren aldaketek baino ikastetxetik kanpo geratzen direnek pisu handiagoa hartzen dutela esatera ausartu naiteke. Praktika aldaketen gaia jorrazterakoan ikusi dugun bezala, nerabeek eskolatik kanpo egiten dituzten jarduera kopurua handia izateaz gain, jarduera horietan parte hartzen duten adin berekoak ere *“anitzagoak”* dira. Nerabeen praktika-komunitateen aniztasuna handitzen da eta hori hizkuntza mudantzarako faktore garrantzitsua bihurtzen da.

Hirugarren fenomeno (euskarari uko egitea) ematen bada ere bigarren fenomenoan aipatu dugun identitate eta hizkuntza prestigioarekin oso lotuta dagoela esan dezakegu.

Azkenik, Euskal Herrian hizkuntza mudantzan ematen den laugarren fenomeno bat proposatzera ausartuko naiz: kode aldaketarako joeraren handitzea. Ikerketa lan honen helburuen artean ez zegoen gazteen kode aldaketaren azterketa egitea baina oso nabarmen agertu den fenomenoenez, labur-labur honen inguruko analisisia egingo dut. Izan ere, aurrera begira antzeko azterketak eginez gero fenomeno honek eduki dezakeen garrantzia txertatzeko beharra ikusten dut. Hona hemen, gazteekin egindako ikerlan honetan gai honen inguruan atera direnak.

4.3.4 Kode aldaketarako joera handitzen

Hiztun talde batek bi hizkuntza ezagutzen dituen edo erabiltzen dituenean, hizkuntza horietan eraginak izan daitezke. Elebidunen kasuan, hizkuntza-alternantzia fenomenoaren ematen da, hau da, bi hizkuntzak erabiltzeko joera (Coyos, 2010:145).

Ikerlan honetan jasotako datuetan eta baita dinamiketan entzun ahal izan ditudan nerabeen arteko elkarrizketetan ere, hizkuntza-alternantziaren fenomeno oso zabaldua dagoela baieztatu dezaket. Nerabeek gaztelania eta euskara oso maiz nahasten dute eta bi izaten dira kode-aldaketa hauen aldaerak.

Batetik, kode-nahasketa dago; esaldi berean hizkuntza bat baino gehiago erabiliz hitz egitea da. Adibidez, esaldi bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea edo alderantziz. Gazteek idatzi dituzten egunerokoetan fenomeno honi erreferentzia egiten ez badiote ere, eztabaida taldeetan nahiko era informalean hitz egiteko aukera izan dutenez, kode-nahasketa oso ohikoa dutela ikusi ahal izan dut.

Adibide garbiena hirugarren egunean banaka ordutegi taula bana marrazteko eskatzerakoan gertatu zen. Gustura jarri ziren lanean eta marrazten zuten bitartean hizketan aritu ziren. Hona hemen ondoan eserita zeuden bi nesken arteko elkarrizketa zati bat:

A: “larunbaten, atera nintzen de shopping... iganden, neukan partido... pasa rotulagailua jente!... Etxeko lanak igande goizen”

B: “ba nik egiten ditut igande gauen, soy un desastre”

A: “astelehenak dira horribles... atzo ikusi nuen El Hormiguero zeuden Alaska y Mario”

B: “galdetu dizut?”

Bestetik, kode-alternantzia ere oso zabaldua dago. Kode alternantzia esaldi batetik bestera hizkuntza aldatzea da; adibidez elkarrizketa batean euskaraz agurtzea eta ondoren erdaraz aritzea. Junior Taldekoek halako egoera batzuk deskribatu dituzte egunerokoetan eta eztabaida taldeetan. Neska batek honako egoera hau idatzi zuen liburuxkan: lau lagun zeuden erdaraz hitz egiten eta une batean batek hitz bat euskaraz esan eta elkarrizketa euskarara pasa zen. Beste neska batek alderantzizko egoera kontatu du: dantzari talde bat euskaraz hitz egiten ari zen eta beste ikastetxe bateko neska bat erdaraz sartu zen eta elkarrizketa erdarara pasa zen. Ohikoagoa zein zen galdetuta, denek oso garbi

Ikerlan honetan jasotako datuetan eta baita dinamiketan entzun ahal izan ditudan nerabeen arteko elkarrizketetan ere, hizkuntza-alternantziaren fenomeno oso zabaldua dagoela baieztatu dezaket. Nerabeek gaztelania eta euskara oso maiz nahasten dute.

**Bestetik, kode-
alternantzia ere
oso zabaldua
dago. Kode
alternantzia
esaldi batetik
bestera hizkuntza
aldatzea da.**

adierazi dute euskaraz hasi eta gaztelaniara pasatzea errazago izaten dela alderantzizkoa baino.

Telefono mugikorretan idatziz komunikatzeko erabiltzen duten Whatsapp aplikazioan ere kode aldaketa hau oso garbi ikusten da. Lehen agurrak euskaraz dira baina segituan erdarara pasatzen dira. Esan daiteke Whatsapp elkarrizketak erdaraz direla nagusiki. Ohiko elkarrizketa bat nolakoa den eskatuta hala idatzi zuten:

kx (kaixo)

zmz (zer moduz zaude)

oo (oso ondo) edo **oo zu?** (oso ondo eta zu?)

ni ere edo **pozten naiz**

QMQ (¿qué me cuentas?)

nada edo **nah** (nada)

tu (¿tú?)

que ase (¿Qué haces?)

aburrida edo **me aburro**

Nerabeek esaten dutenez, QMQ horretatik aurrera gaztelaniaz jarraitzea ohikoa da. Horren ondorioz, esan daiteke, mugikorraren bidezko elkarrizketa gehienak, euskarazko agurrekin hasten badira ere, erdaraz garatzen direla.

Coyosek, Uriel Weinrich-i jarraituz, (Coyos, 2010:146) ohartarazten digu interferentzia kontaktuan dauden bi hizkuntzetan izan daitekeela baina praktikan, gehienetan interferentziak norabide berean gertatzen direla, gehiengotik gutxiengora. Gure ikerketan fenomeno hau baieztatuta geratuko litzateke. Ikusi ahal izan dugu kode-aldaketen bidez gazteek euskaraz hitz egiten dutenean ere gaztelaniazko esamoldeak sartzeko joera dagoela eta, oso erraza dela euskaraz hasitako hizketaldi bat erdarazko elkarrizketa bilakatzea.

5. ONDORIOAK

I

Idazlan honen sarreran egindako ikerketa lan hau mugatua dela aipatzen nuen. Donostiako Zurriola Ikastolako gazte talde batek eta nik neuk egindako azterketa labur bat izan da eta ondorioak, beraz, ez dira orokortzeko modukoak. Ez zen hori lan honen helburua, hizkuntza aldaketen fenomenoan sakontzeko beste bide bat esperimentatzeko ikerketa bat egitea baizik. Horregatik, ondorioak bi ataletan banatu ditut. Batetik, alderdi teoriko-metodologikoaren inguruko hausnarketak

azaldu ditut eta, bestetik, ikerketan ateratako datuen inguruko ondorioak idatzi ditut.

5.1 Alderdi teoriko-metodologikoaren ondorioak

Ikerketa honekin nerabeen kolektiboari protagonismoa eman nahi izan diot. *Emic* perspektiba batera hurbildu nahi izan dut hizkuntza aldaketan prozesuei buruzko nerabeen ikuspegiari garrantzia emanaz. Horretarako nerabe talde baten inplikazioa eduki dut eta emaitza oso positiboa izan dela esan behar da.

Metodologikoki, Junior Talde baten osaketa oso baliabide interesgarria dela ondorioztatu ahal izan dut. Sei gaztez osatutako taldeak gogo handiz lana egin du eta lan honek jorratu dugun hizkuntzaren gaiaren inguruko perspektiba berria eskaini digu.

Eskolako eguerdiko atsedean garaian hiru eztabaida taldeen dinamikan parte hartu dute eta ez dute inongo momentutan kexarik adierazi, gustura aritu direla esan dute. Nire ustez nerabeek (batzuk behintzat) gizarte gaiei buruz hausnartzeko eta iritzia emateko gogoz daude eta aukera eta giro egokia eskainiz gero ondo erantzuten dute. Saio hauen kopurua (hiru saio) eta iraupena (ordu eta erdiko iraupena) egokia izan dela uste dut.

Egunerokoak teknika gisa erabiltzea egokitzen jotzen dut. Eztabaida taldeetako hausnarketetarako oinarria ematen dute eta saio hauetan elkarriketa formatua apurtzeko balio dute; nerabeek idatzitakoak aipatzen zituzten nire galderen beharrik gabe eta hortik abiatzen ziren eztabaidak.

Hobetzeko alderdien artean, nerabeekin egindako lana hauen guraso, entrenatzaile, irakasle eta bestelako hezitzaile batzuekin kontrastatzeko bideak jorratzea legoke. Helduekin elkarriketak edo eztabaida taldeak egiteak datu osagarri interesgarriak eman ditzake. Hala ere, interesgarriena adin bereko gazte gehiagorekin antzeko lana egitea litzatekela uste dut. Alde horretatik, hizkuntza mudantzen fenomenoak ulertzeko gazteekin bizitza istorioak teknika etnografikoa erabiltzeak informazio osagarri interesgarria eman dezake.

Metodologiaren ikuspegitik, beraz, haurtzaro eta nerabezeroaren antropologian planteatzen diren oinarriak oso interesgarriak direla agerian geratu dela uste dut. Nerabeek gizarte ikerketan subjektu bihurtzeko haien “agentzia” eta ekiteko gaitasuna berreskuratzeko lagungarria

**Beharbada
aldaketa
nagusiena ez da
praktika motan
nabaritzen,
praktika
aniztasunean
baizik. Hau da,
nerabeek egiten
dituzten jarduera
kopurua
handiagoa
izateaz gain,
jarduera horietan
parte hartzen
duten adin
berekoak ere
“anitzagoak”
dira.**

izateaz gain, informazio baliagarria jasotzeko interes handia du. Euskal Herriko hiztunen azterketa soziala egiteko haur eta nerabeen ikuspegitik abiatzea zenbait gauza argitzeaz gain, gaztetxoek hizkuntza kontuetan ekiteko gaitasuna aktibatze oso interesgarria dela agerian geratu dela uste dut.

Alderdi teorikoari dagokionez, gure testuinguruan orain arte hain eza-gunak izan ez diren zenbait kontzeptu eta garapen teorikoen inguruan aritu naiz: hizkuntza sozializazioa, praktika komunitatea eta hizkuntza mudantzak. Nire ustez bide horretatik oso marko teorikoa interesgarri eta baliagarria osatu daiteke hizkuntzen fenomenoaren konplexutasuna eta dinamikotasuna hobeto ulertzeko. Dena den, ikerlan honetan ez dut gehiegi sakondu eta bideari kuku egin badiot ere, alor teoriko horretan sakonago ari direnen hausnarketei jarraituz, lan handiagoa egin beharko litzatekela uste dut.

5.2 Azterketaren emaitzen inguruko ondorioak

Gorago aipatu dudan bezala azterketaren emaitzak, bere horretan, orokortzeko modukoak ez badira ere, datu eta emaitza interesgarri batzuk atera direla esan daiteke.

Haurtzarotik nerabezarora ematen diren praktika aldaketei buruz esan daiteke egindako ikerketan ez direla horrenbeste jarduera ezberdinak azaldu edo, gutxienez, nerabeek ez dutela hainbeste jarduera aldaketarik nabaritzen. Jarrera eta egoera emozionalen aldaketak, ordea, askoz garbiago agertu dira.

Beharbada aldaketa nagusia ez da praktika motan nabaritzen, praktika aniztasunean baizik. Hau da, nerabeek egiten dituzten jarduera kopurua handiagoa izateaz gain, jarduera horietan parte hartzen duten adin berekoak ere “anitzagoak” dira. Haurtzaroan egiten zituzten praktikak ikastetxe bereko lagunekin eta familia ingurukoekin garatzen zituzten nagusiki. Nerabezaroan beste ikastetxetako eta beste auzoetako nerabeekin harremanetan jartzen dira eta zenbait jardueretan talde berriak osatzen dituzte. Esan daiteke, beraz, nerabeen praktika komunitateen aniztasuna handitzen dela eta honek hizkuntza praktiketan ondorioak ditu. Jarduera moten arabera ondorio hauek laburbildu ditzakegu:

— Aisialdi ez antolatuan ematen den aldaketa nagusia lagun taldeetan eta koadriletan gertatzen diren aldaketak eta neska eta mutilen arteko harreman mota berriak lirateke. Bestalde, jolasak

baztertzen dituzte eta nerabeak praktika berriekin esperimentatzen hasten dira: edatea eta erretzea adibidez.

— Eskolaz kanpoko jardueretan ordu asko ematen dituzte. Haurtzarotik ordu kopuruetan aldaketa handia ematen ote den ez dugu jaso. Dena den, arlo hau zehatzago ikertu beharko litzatekela uste dut, hainbat ikerketek hizkuntza praktikei begira alor garrantzitsua dela adierazi dutelako eta jarduera hauetan hizkuntza ohitura ezberdinetako nerabeak nahasteko joera dagoelako.

— Input mediatikoari dagokionez, musika edo zine kontsumoan aldaketa gutxi ematen da baina entzuten duten guztia ingelesez eta gaztelaniaz da. Telebista kontsumoaren denbora murrizten da eta marrazki bizidunak ikustetik gaztelaniazko telesaiotara igarotzen dute. Mugikorraren erabilera asko handitzen da, batez ere, lagunartean sare sozialen bidez elkar komunikatzeko. Bideo-jokoetan ere sarean jolasteko joera dago.

— Etxeko eta eskolako praktikei dagokionez nerabeek aipatu dituzten aldaketak praktiketan baino harremanetan zentratu dituzte. Irakasleekin eta gurasoekin dituzten harremanetan aipatzen duten aldaketa nagusia gatazka hitzarekin definitu daiteke, haserreak eta istiluak ugariagoak baitira. Gainera, gurasoekin planak egiteko joera pixkanaka murrizten joaten dela lagun taldearekin denbora gehiago pasatzeko joera handituz.

Bestalde, azterketa lan honen helburuen artean sozializazio arau orokor hauetan ematen diren aldaketek hizkuntz erabileraren aldaketarekin eduki dezaketen harremana aztertzea garrantzitsua zen. Alde horretatik, aldaketek gaztelaniaren erabilera handitzeko joera eragiten dutela argi ikusten da.

Hasteko, nerabeek kontsumitzen dituzten produktu kultural ia guztiak erdaraz dira. Bestetik, lagunarteko harremanetan ere, aurre-aurrekoetan eta tresna elektronikoen bidezkoetan, gaztelaniak pisu handiago hartzen du eta gainera pareen arteko harreman hauek denboran handitu eta ugaritzen dira.

Azkenik, praktika-komunitate gehiagotan eta anitzagotan parte hartzen dutenez, panorama konplexuago eta dinamikoagoa bihurtzen zaigula ikusi dugu. Hala ere, konplexutasun honen barruan, gaztelaniaren erabilera handitzeko joera nagusitzen dela ikusten da. Alde horretatik, ikastolatik kanpoko praktika-komunitateetan (eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan eta aisialdi ez antolatuan) euskara ia erabat desagertzen dela argi agertzen den fenomeno da.

Aisialdi ez antolatuan ematen den aldaketa nagusia lagun taldeetan eta koadriletan gertatzen diren aldaketak eta neska eta mutilen arteko harreman mota berriak lirateke.

Input mediatikoari dagokionez, musika edo zine kontsumoan aldaketa gutxi ematen da baina entzuten duten guztia ingelesez eta gaztelaniaz da.

Praktika-komunitate gehiagotan eta anitzagotan parte hartzen dutenez, panorama konplexuago eta dinamikoagoa bihurtzen zaigula ikusi dugu. Hala ere, konplexutasun honen barruan, gaztelaniaren erabilera handitzeko joera nagusitzen dela ikusten da. Alde horretatik, ikastolatik kanpoko praktika-komunitateetan (eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan eta aisialdi ez antolatuan) euskara ia erabat desagertzen dela argi agertzen den fenomeno da.

Beraz, ikerlan honetarako jarritako hipotesia betetzen dela nahiko garbia da: haurtzarotik nerabezarora ematen diren pareen-arteko gizarte arauen aldaketek hizkuntza erabileraren aldaketarekin lotura zuzena dute. Ez da bat-batean ematen den fenomeno bat; haurtzaro osoan poliki-poliki garatzen da baina 10 eta 14 urte bitarteko garaian nabarmenki hautematen da.

Aldaketa fenomeno honi hizkuntza mudantza deitzen zaio eta horren gainean egindako azterketan ere ondorio batzuk atera ditut. Orain arte idatzi ditudanak ikusirik, lehen ondorioa begi-bistakoa da: haurtzarotik nerabezarora hizkuntza mudantza ematen da.

Institutu garai honetan ematen den hizkuntza mudantzaren bidez agertzen diren hiru fenomenoei dagokionez, hauxe ondorioztatu dut:

1a. Ikasle aldaketa eta nahasketa gutxi ematen da. Hemen aztertutako kasuan fenomeno honen pisua ez da adierazgarria izan. Honen orde...

1b. ...ikastetxean gertatzen diren aldaketak baino ikastetxetik kanpo geratzen direnak pisu handiagoa hartzen dutela ondorioztatu dugu. Gorago aipatu dugun moduan, nerabeek eskolatik kanpo egiten dituzten jarduera kopurua handia izateaz gain, jarduera horietan parte hartzen duten adin berekoak ere "anitzagoak" dira. Nerabeen praktika-komunitateen aniztasuna handitzen da eta hori hizkuntza mudantzarako faktore garrantzitsua bihurtzen da.

2. Talde antagonistak eta tribuen identitatearen fenomeno argien agertzen zaigun ezaugarria da eta, nire ustez, pisu handiena duena. Zurriola ikastolako ikasleen taldea beste tribuen aurrean definitzen duen identitatearen ezaugarri garrantzitsuena euskara da. Baina, etiketa hau arazotsua suertatzen da euskara ez delako adin honetan prestigioa duen hizkuntza eta Zurriolako nerabeen artean etiketa honi uko egiteko beharra sentitzen dute beste praktika komunitateetan era egokian agertu ahal izateko. Dena den, Feixa eta antzeko autoreen azterketa eta teorizazioetan gehiago sakonduz fenomeno honen azterketa sendoagoa egitea oso interesgarria izango litzatekela uste dut.

3. Euskarari uko egitearen fenomeno, beraz, identitate eta hizkuntza prestigioarekin oso lotuta dago.

4. Azkenik, Euskal Herrian hizkuntza mudantzan ematen den laugarren fenomeno bat ematen dela iradoki dut: kode aldaketarako joeraren handitzea. Kode aldaketa honen ondorioz euskarazko el-karrizketak erdarazkoak bilakatzeko joera oso handia dela dirudi.

Aurrera begira, haurtzaro eta nerabezeroaren antropologian oinarritutako hizkuntza mudantzak aztertzeko ikerketa lan gehiago egitearen aukera eta egokitasuna azpimarratuz bukatu nahi dut. Izan ere, ikerlan honetan parte hartu duen gazte batek *pasilloetan euskara galtzen dela* zion. Agian, euskara pasilloetan galtzen da hiztunok galdu samar gabiltzalako. Ikerketa, hausnarketa eta ikuspegi berriren bidez, beraz, pasillo eta kale eleanizetan ez galtzeko mapak osatzen hasi beharko genuke. ●

OHARRAK

1. Artikulu hau 2014-2015 ikasturtean EHU-ko Gizarte Antropologia Graduan Hizkuntzaren Antropologia ikasgaiarako egindako ikerketa lan batean oinarrituta dago. Lan honen tutorea Jone Miren Hernandez irakaslea izan da eta berak gidatu eta proposatutakoak dira ikerketaren oinarri asko.
2. Izendapena Begoña Leyra Fatou-k eta Ana Maria Barcenasek idatzitako “Reflexiones etnográficas sobre el ocio infantil” lanetik atera dut Leyrak dionenez gaztetxo talde hauek hainbat autorek (Liebel, Cussianovich, Marquez eta Gaitan) defendatzen duten “haurren protagonismoa” eta “haurren ko-ikerketa” indartzen dute (Leyra & Barcenás, 2014: 9).
3. Ideia hau oso interesgarria zaigu haurtzaro eta nerabezeroaren antropologiaren ikuspegitik hizkuntza sozializazioaren izaera elkarreragilea haurra edo nerabea ezagutza sozialaren hartzaile pasiboa baino gehiago, gizataldeko bertze kideekin dituen elkarrekin-tzetan esanahi eta emaitzen emaila aktiboa baita.
4. Donostiako Antigua auzoko bi ikastola dira.

ERREFERENTZIAK

- AMONARRIZ, Kike (2014-08-09) “Ezinbestekoa da minimoetara iristea” in *Berria*.
- CASAS, Ferran (2006) “Infancia y representaciones sociales” in *Política y sociedad*, Vol 43, 1. Zenbakia, 27-42 orrialdeak, Universidad Complutense de Madrid.
- COYOS, Jean-Baptiste (2010) “Hizkuntza-ukipena” in *Soziolinguistika Eskuliburua*. 135-185 orrialdeak. Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza
- EUSKO JAURLARITZA (2013) *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritza.
- FEIXA, Carles (1999) *De jóvenes, bandas y tribus. Antropología de la juventud*. Barcelona: Ariel.
- HARDMAN, C. [1973] (2001) “Can there be an Anthropology of Childhood” in *Chillhood* 8, 501-507 orrialdeak.
- HERNÁNDEZ, J. M. (2001) “Euskararen transmisioa gaur: ikerketa tresnak eta estrategiak” in *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 38, 107-118 orrialdeak. Soziolinguistika Klusterra.
- HERNÁNDEZ, J. M. eta BULLEN, M. (2014). EHU-ko Gizarte Antropologia Graduko Hizkuntza Antropologia ikasgaiaren apunteak.
- HUIZINGA, Johan (2000) *Homo Ludens*. Madrid: Alianza

- HOLMES, Janet, MEYERHOFF (1999) "La comunidad de práctica: teorías y metodologías en investigación de lengua y género" in *Language in Society*, Cambridge University Press 28, 173-183 orrialdeak.
- JOCILES, María Isabel, FRANCÉ, Adela, POVEDA, David (eds) (2011), "El estudio etnográfico de la infancia y de la adolescencia: posibilidades y retos" in *Etnografías de la infancia y de la adolescencia*, Madrid: Catarata
- KASARES, Paula (2013). Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan. Doktore tesi argitaragabea. Iruñea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- LEYRA, Begoña, BARCENAS, Ana Maria (2014) "Reflexiones etnográficas sobre el ocio infantil" in *REMELCS* vol.4 nº 1. Universidad Nacional de La Plata.
- LOINAZ, Miren eta SUSPERREGI, Izaro (2012) "Haur eta gazteen kale erabilera datuak aztertuz" in *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 84, 153-162 orrialdeak. Soziolinguistika Klusterra.
- PUJOLAR, Joan, GONZALEZ, Isaac, FONT, Anna, MARTÍNEZ, Roger. (2010a) *Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Generalitat de Catalunya.
- PUJOLAR, Joan, GONZALEZ, Isaac, MARTÍNEZ, Roger. 2010b. "Les mudes lingüístiques dels joves catalans" in *Llengua i ús. Revista Tecnica de Política Lingüística*. 48. Zenbakia.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, TOPAGUNEA & URTXINTXA (2011) *Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida. Erabileraren GPSa*. Soziolinguistika Klusterra.